

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
0 positibo berri	1.574 hildako EAEn	3 positibo berri	515 hildako
2.263 positibo guztira*	18 UCIn, EAEn	5.329 positibo guztira	9 UCIn
*Hernanin 60, Astigarragan 20		Sendatuak: EAE 16.086, Nafar. 6.968	

Udaleku irekiekin aurrera egitea erabaki du Xaguxarrek, eta aste honetan eman behar da izena

Lau txandatan egingo dituzte, bi astekoa bakoitza, uztailean eta abuztuan. 4-12 urte bitarteko haurrentzat izango dira, eta internet bidez eman behar da izena, ostiralera bitarte, 'xaguxar.org' webgunean.

ASTIGARRAGA XAGUXAR

Koronabirusak eragindako egoerak, kolokan jarri ditu udalekuak; bertan behera geratu dira asko, eta zalantzan daude beste hainbat. Xaguxar Aisialdi Taldeak, ordea, erabaki du udaleku irekiekin aurrera egitea.

«COVID-19ak sortu duen egoera dela eta, aurtengo udalekuak egokituko ditugu baldintza horietara», jakinarazi dute.

Hori horrela, lau txandatan egingo dituzte udalekuak, uz-

tailean eta abuztuan. Bi aste-koa izango da txanda bakoitza: aurrenekoa, ekainaren 29tik uztailaren 10era; bigarrena, uztailaren 13tik 24ra; hirugarrena, abuztuaren 3tik 14ra; eta laugarrena, abuztuaren 17tik 28ra.

Gainera, talde txikiagoak eta finkoagoak egingo dituzte, eta beharrezko segurtasun neurriak hartuko dituzte udalekuetan.

Goizeko ordutegian izango dira, 09:30etatik 13:30etara; eta egoeratik, aurtengo ez dute irteerarik egingo. Gainera, nahi du-



Udaleku irekiez gozatu ahal izango dute astigarrarrek, baina talde txikiagoetan.

enak, zaintza zerbitzua ere eskatu dezake goizeko 08:00etatik 09:30etara; baina jangela zerbitzurik ez da izango.

Izenematea aste honetan egin behar da, ostiralera bitarte, internet bidez: xaguxar.org/

2020/06/udaleku-irekiak-2020. Eskaintako tokiak baino jende gehiago apuntatuz gero, Astigarragan errolatuta daudenek izango dute lehentasuna, eta zozketa egingo dute ekainaren 15ean. Webgunean eta sare so-

zioletan argitaratuko dute zozketa, egun horretan. Hori bai, haur bakoitzak txanda bat izango du bermatuta.

Zozketaren ondoren, behin betiko izenematea egiteko, ordainketa egin behar da, ekainaren 16tik 19ra. Prezioa 60 eurokoa da txanda bakoitzeko, eta badira beharrezkoak: %20koa, izena emandako bi senideetako bati, edo familia ugariko haur bakoitzari. Ordainketa egiteko, Euskadiko Kutzako kontu honetan egin behar da ingresoa, haurraren izen-abizenak adierazita: 3035 0214 35 2140017089.

Informazio bilerarik ez dute egingo aurtengo, baina nahi duenak, eskura dituzte emaila eta telefonoa (goizez), edozein zalantza argitzeko: info@xaguxar.org, edo 943 33 50 64. **K**

Ariketa fisikoko bost ikastaro hasiko dira datorren astean, eta ostegunera arte eman daiteke izena

Hernaniko kiroldegia antolatuta, ekainaren 15etik 30era izango dira honakoak: 'Martxan jarri!', 'Zirkuituak aire librean', 'Hernanin barrena', pilatesa, eta zunba. Izena emateko: 943 55 21 85 edo 'kirola.hernani.eus' webgunea.

HERNANI-ASTIGARRAGA KIROLA

Bost ikastaro antolatu ditu Hernaniko Udako Kiroldegia, ekainaren bigarren hamabostaldirako. Adin tarte guztietarako eskaintza izango da tartean, eta aire librean egingo dituzte saioak, Ave Maria parkean, igerileku irekietako belardian, edota herrian barrena. Eguraldi txarra egiten duen egunetan, kiroldegiko pista izango dira.

Guztietan, ostegunera arte eman daiteke izena, 943 55 21 85

telefonoan, edo internet bidez kirola.hernani.eus/eu/hasiera webgunean. Ostiralean argitaratuko dute onartutako zozketa, goizeko 09:00etan.

55-65 urtekoentzat da, *Martxan jarri!* izeneko ikastaroa, eta astelehenean eta asteazkenetan egingo dute, goizeko 10:00etan. Ariketa fisikoa taldean egitea da helburua. *Zirkuituak aire librean*, berriz, 14-17 urtekoentzat izango da. Astearte eta ostegunetan egingo dute, arratsaldeko 16:00etan; eta asmoa da «oina-

rrizko ezaugarri fisikoak hobetu eta bizitzeko modu osasuntsuak sustatzea». *Hernanin barrena* izenekoak, ordea, 18-65 urteko tartea hartzen du, eta herrian barrena egingo dituzte zirkuituak edota korrika, astearte eta ostegunetan 17:30etan. Fisikoki entrenatuta daudenentzat izango da, eta ariketa eta proposamen desberdin ugari izango ditu. Pilatesak bi txanda izango ditu: astearte eta ostegunetan 10:00etan, edo astelehenean eta asteazkenetan 17:00etan. 16-65 urte bitartekoentzat izango da. Eta adin tarte bera hartuko du zunba ere, astearte eta ostegunetan, 18:30etan.

Ikastaro guztien prezioa berbera izango da: bazkideentzat 18,20 euro, eta bazkide ez direnentzat 29,55 euro.



Ariketa fisikorako gune izango da berriro, igerileku irekietako belardia.

Astigarragan, doako saioak Astigarragako kiroldegia ere aurreratu du, doako saioak eskainiko dituela aurrez aurre, ekaineko bigarren hamabostal-

dian. Izenematea beharrezkoa izango da, saioaren aurreko egunetan eginda: 943 33 36 76 telefonoan edo kiroldegia@astigarraga.eus helbide elektronikokoan. **K**

ME Oinarrizko Lanbide Heziketa
MARTUTENE Lanbide Eskola

ELEKTRIZITATEA ELEKTRONIKA

INFORMATIKA KOMUNIKAZIOAK

AURREMATRIKULA 2020.06.01 - 2020.06.19

943 46 01 45 / 610 787 001
info@fpmartutene.org
fpmartutene.org

Zorionak Oroitz! 2 urte

Muxu pila bat etxeko partetik

ERRIOGUARDA-ENEA
J A T E T X E A

ASTEARTEA, ekainak 9, **IREKITA**

Kartaz eta eguneroko menuaz gain, plater bat eta postrea, plater konbinatuak eta janaria etxera eramateko aukera.

Iturriaga kalea, 10. Hernani Tel: (943) 33 02 91

GAUR Euriarekin jarraituko dugu, baina gutxiago egingo du, eta kostaldera mugatuko da gehienbat. Ipar-mendebaldeko haizea indartsu ibiliko da oraindik, kostaldean bereziki, eta bolada gogorak espero dira. Temperatura, berdintsu. **Min.12° / Max.18°**

BIHAR Lainoak izango dira nagusi zeruan, oraindik ere; baina euri gutxi egingo du, eta kostaldean bakarrik. Barnealdean, ostarte ederrak zabalduko dira tarteka. Indarra galduko du iparraldeko haizeak. **Min.12° / Max.19°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Ostiralean banatuko dituzte Errigorako loteak, Hernanin

Plazan jaso beharko dituzte, olio eta kontserba eskaerak egin dituztenek: 12:00etan hasi eta 19:30ak arte, babes neurriak hartuta.



Hernaniko Plazan banatuko dituzte, Errigora loteak.

HERNANI-ASTIGARRAGA AEK

Astigarragako eta Hernaniko AEK euskaltegiek jakinarazi dute, ostiral honetan egingo dutela Errigorako loteen banaketa; bai kontserbena, eta baita olioarena ere. Berez, martxoaren 27an egitekoa zen olioaren banaketa, baina Koronabirusaren eraginez atzeratu zuten, eta biak elkarrekin egingo dituzte orain.

Etzidamu egingo dute banaketa, Hernaniko Plazan. Eguerdiko 12:00etatik arratsaldeko 19:30etara egingo dira bertan, eta ordu tarte horretan pasa beharko dute dagokiena jasotze-

ra, olio edota kontserbak eskatu zituztenek. «Garrantzitsua da bertaratzea eta bakoitzak dagokiona jasotzea», jakinarazi dute. Eta nabarmendu dute, produktuen bila joaten direnek babes neurriak hartu beharko dituztela, horiek jasotzeko.

Eskudirutan ordaintzeko, kopuru zehatza eraman
Horrela, esaterako, derrigorrezkoa izango da maskarilla jantzita joatea, produktuak biltzeko. Era berean, ilara osatuz gero, bi

metroko segurtasun distantzia mantentzeko eskatu dute, eta baita guneko arduradunaren argibideak jarraitzeko ere.

Eta eskudirutan ordaindu behar dutenen kasuan, beste eskaerarik ere luzatu dute: kopuru zehatza eramatea, kanbiorik eman beharrik ez izateko.

Nafarroako hegoaldeko nekazarien produktuak dira Errigora kanpainan saltzen dituztenak, eta helburua da, horren bitartez, bertako euskerari ere bultzada ematea. **K**

Epea zabalik establezimenduek, Udalaren laguntzak eskatzeko

Joan den astean argitaratu ziren Udal Planean jasotako dirulaguntzak GAOn, eta hilabeteko epea dute merkatari eta ostalariek, eskatzeko.

ASTIGARRAGA UDALA

Maiatzeko Plenoan eman zion onarpena Astigarragako Udalak, COVID-19aren ondorioei aurre egiteko Udal Planari. Eta bertan jaso zituen hainbat dirulaguntza partida eta kanpaina, herriko merkatariak, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduei bideratutakoak. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu bezain laster jarriko ziren horiek indarrean, eta joan den astean eman zuten GAOK horren berri.

Gauzak horrela, joan den asteartetik hasita, hilabeteko epea dago eskaerak egiteko.

Laguntza horietan aurrenekoa, dirulaguntza zuzenena da. Izan ere, Udalak diru kopuru finko bat emango die, alarma egoera deklaratzaren ondorioz jardura geldiarazi behar izan zutenei, edota fakturazioa %60 baino gehiago murriztu zitzaizkion. Laguntza hori 1.500 eurokoa

izango da taberne, jatetxe, sagardotegi, landetxe, pentsio eta hotelen kasuan; eta 800 eurokoa txikizkako merkatariaren eta zerbitzuen establezimenduetan.

Horrekin batera, gainera, beste kopuru bat ere emango die lokalaren alokairua edo hipoteka ordaindu behar dutenei: gehienez ere hiru hilabetekoa lagunduko du diruz, eta gastuaren %50 estali. 300 euro artekoa izango da hileko laguntza, alokairuaren kasuan, eta 100 euro artekoa hipotekan.

Dirulaguntza eskaerak telematikoki egin behar dira, Udalaren web orriaren bitartez: astigarraga.eus/eu/tramiteak. Pertsona fisikoek, Udal Erregistroan ere egin ditzakete. Honako dokumentazioa entregatu beharko dute: eskaera orria; fakturazioaren murrizketa martxoaren 14tik maiatzaren 11ra, 2019ko epe bereko edo urteko batzabesteko datu ekono-

mikoekin batera; identifikazio dokumentuak; kontu korrantea; Gizarte Segurantzaren eta Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergan altan emanda egotearen ziurtagiriak; zerga betebeharrak egunean izatearen frogagiriak; eta alokairu edo hipotekaren kontratua, izatekotan.

Deskontu bonuen kanpainan parte hartzeko, eskaera

Udal Planeako beste laguntza, deskontu bonuei dagokie. Udalak 10, 20, 50 eta 100 euroko bonuak salduko ditu online, bezeroek %20 deskontuarekin erosita; eta horiek erabili ahal izango dituzte, parte hartzen duten komertzioetan. Ekimean parte hartzeko, izena eman behar dute establezimenduek, enplegua@astigarraga.eus helbide elektronikora idatzita. Eskaera jasotakoan, formulario bat bidaliko diete bueltan, osatu beharreko informazio eta dokumentazioarekin.

Ekainaren erdialdera jarriko da martxan deskontu kanpaina, izena eman duten establezimendu guztietan. **K**

Laugarren saioa gaur, elkar ikasketa eremuak

Azkenurreko saioa eskainiko du Harago Aholkularitzak, Zoom programaren bitartez, arratsaldeko 16:00ak eta 18:00ak bitartean.

ASTIGARRAGA AZTIFEMIAK

Bost saioko formakuntza ikastaroa antolatu zuen Aztifemiak talde feministak, maiatza eta ekaina bitartean; eta gaur egingo dute laugarrena. Aurrekoak bezala, Harago Aholkularitzak eskainiko du telematikoki, Zoom programaren bitartez, arratsal-

deko 16:00etatik 18:00etara.

Elkar ikasketa eremua da martxan jarri nahi izan dutena, komunikatzeko gaitasuna lantzeko eta trebatzeko, «eraginkortasunez eta konfiantzaz komunikatu nahi duten emakumeentzat, bizitzaren eremu ezberdinei begira komunikazioa beren helburu eta desioen zerbitzura jarri nahi dutenentzat».

Parte hartzeko, aldeztatik eman behar da izena, eta plazak mugatuak dira; baina interesa duenak, mezua idatzi dezake aztifemiak@gmail.com helbide elektronikora. Gaur zortzi izango da azkeneko saioa. **K**

Etxetik erosteari buruzko saioa, gaur

URUMEA KZGUNEAK

Maiatzean bezala, ekainerako ere hitzaldi sorta antolatu du KZguneak, internet bidez. Youtubeko *KZguneaTIC* kanalean daude ikusgai orain artekoak, eta gaur eskainiko dute beste bat: *Erosi etxetik irten gabe*. Euskeraz izango da, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara, eta irekia da, nahi duten guztientzat. Bertan landuko dute, nola erosi «modu erosoan, etxetik eta segurtasunez». Internet bidez erostearen abantailak eta desabantailak ere emango dituzte aditzera, eta baita ordaintzeko moduak ere. Aste honetan bertan, beste hitzaldi bat eskainiko dute, ostegunean. Gaztelaniaz izango da, goizeko 11:00etatik 12:00etara: *Zure diru-zorroa smartphonean*.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **M^a CARMEN URDANGARIN LETAMENDIA**
(Antonio Goikoetxearen alarguna)
Herenegun hil zen, 94 urte zituela.
- Goian bego -
Seme-alabak: Carmen (†) eta Juan Jose Etxebarria, Pablo eta Begoña Paradelo, Paki eta Josep Armengol, Marian eta Mikel Plazaola; bilobak: Maria eta Jon, Itziar eta Jakub, Mikel, Monika, Marina, Maialen eta Iñigo, Paul eta Andoni, Olatz eta Iker; anaia: Javier; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela **GAUR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, Hernaniko SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker. Eskerrak eman nahi dizkiegu Tolosako Uzturre egoitzako langile guztiei jasotako maitasunagatik eta zaintzagatik.
Hernanin, 2020ko ekainaren 9an
OHARRA: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:00ak arte.

† **M^a CARMEN URDANGARIN LETAMENDIA**
(Antonio Goikoetxearen alarguna)
- Goian bego -
"Poza nabari zen hemen zinenean ta ze pena daukagun joan zarenean! Bizitzan bezalatsu ere heriotzean, edukiko zaitugu denok bihotzean."
ALTZUETA BASERRIKO ILOBAK
Hernanin, 2020ko ekainaren 9an

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**